

8. zkia. 1998ko apirila
Mens sana in corpore corrupto. Def Com Dos.

**Ale
erotikoa**

h a u

h a u

N

orena ote gorputz eder hau?
Lehiaketa abian ipini dugu.
Begian estalita dituen gizase-
me honen izena jakitekotan,
bidalieiguzue. Badakizue
nora, Hau...hauren erredak-
ziora. Zain gaude

SAGARDOTEGIAN ZERUA, AUTOBUSEAN INPERNUA

**Sodoma
eta Gomorra
gure artean**

Ez daukagu erre-
mediorik, kon-
partsakideok.
**Txango bat antolatzen-
den bakoitzean zerbait
izkutatu beharrean
aurkitzen gara.
Dirudienez sagardoak
udaberria aurreratu
zuen gure konpartsaki-
deen gorputzen barne-
an, baina bueno, hasie-
ratik hasiko gara.**

Bilbotik Gipuzkoaruntz
abiatu ginenean autobuse-
an dena zen alaitasuna eta
algara. naiz eta guztiok
jakin hau gelditzeko arris-
kua zegoela. Donostialdera
heldu bezain laster galdu
egin ginen. Dirudienez,
baten batek Easo lirainaren
airearen eraginez, gidariari
Hernanira gindoazela esan

ziolako. Honela, antolatuta
ez zegoen bisita turistiko
batez gozatu genuen
Donostialdetik. Lasartera
heldu eta pote «batzuk»
edatea erabaki genuen,
HPHko ausartenek beraien
bizia arriskatuz nonnahi
Marijaiaren abestia jartzen
zutelarik.

Handik sagardotegira, erre-
pide estu eta ilun batetik
egiten genuela bidea.
Baina, bapatean... ARGIA!!
Hura (sagardotegia)
Beleneko portala zirudien,
Joxe atea zaintzen, Ama
Birjina mahaia antolatzen,
behia plateretan eta gu
astoarena egiten. Kupelak
ikusí orduko umeaz ahaztu
ginen, baina ziur aski hor-
tik bazebilen Kanaan-eko
eskontzetan bezla ura

sagardoa bihurtzen.
Hiru errege «Moro»-ak gero-
ago topatu genituen, mendi
puntan kafea hartzen.
Bitartean Eguzkizaleak
konpartsakide batek orkati-
la bihurtu zuen eta lehe-
nengo laguntzak egin behar
zizkioten autobusean.
(Batzuek arretea deitzeko
edozer gauza egiten dute).
Hernanin, desenfrenoa.
Bizkaitarrez herera zegoen
eta kriston parranda bota
genuen (esan didatenez).
Beraz, orain arte zeruan
bezala.

Zerua eta gero, inpernua

Baina dena zerua ikutzea
bezala izan zela uste
duzue? Bada ez, itzuleran
inpernua ezagutu genuen.

Hasteko autobusean filme
«kulturala» jarri ziguten,
Sodoma eta Gomorrako
ohiturei buruz.

Askapeñakoek atserritar
kulturen interesa erakutsiz
apunteak hartzen zituzten
bitartean, atsekaldetan fil-
maren «remake» bat egiten
hasi ziren.

Beroa goruntz jotzen zuen
autobus barnean. Bizioa eta
pekatuaren beroa zen hura.
Inpernua zirudien autobu-
sa, iluna gorria bihurtu zen.
Sodoma eta Gomorra gure
artean!!

Eskerrak arin heldu ginela
Bilbora, bestela batek daki
zer gertatuko zen. Pozik
itzuli ginen, nahiz eta bat-
zuei hurrongo egunean irri-
barra aldatu. Gu behintzat
errepikatzeke prest.

TORRENTE

(erdal legearen beso ergela)

Fikziozko pertsonai baten aurrean zaude-tela pentsatzen duzuenak zeharo oker zabiltzate, pertsonaia hau egon baitago eta tamalez gure artean horrelakoak ugariak baitira, Torrente bezalakoak izateko ez duzu zertan polizia izan behar.

Zenbat «matxista, faxista eta arrazista» ezagutzen ditugu?

Zenbat jende uste du oraindik Espainia bat eta bananduezina dela?

Edota hizkuntza eta burujabetasun eskubi-deak bakarrik beraien inperioari dagozkiela?

Hau...Hau,



pakearen alde

Hau...Hauk euskal gizarteari zerbitzua egin nahian jendetza honentzako irtenbide bat eskaini dugu.

Itzulerarik gabeko bidai bat Sevillako «Apirileko Azokara».

Hor bere giroarekin elkartuko dira, gustora bizi eta ugaldtu, gu pakean utzirik.

Eta ziurtatzen badigute ez direla hona bueltatuko zin egiten dugu gu ere ez garela Sevillara itzuliko.



Aurkeztu zeure burua...

Sergio naiz eta koordinakunde bateko alkoholikoa naiz eta harro nago.

Txantxa da, eh?

(Ez du esan, baina

Askapeña konpartsakoa da)

Nolako izan zen zuen txosna iaz?

Eeeeeeh, aaaaaah, baaaaa...

Memoria ona, ezta?

Bai. Baina aurtengoa nolako izango den badakit.

Eta aurtengoa nolako izango da?

Aurten, Internazionalista Egunaren leloa hartuko dugu. «Independentziaren garaia da», eta, marrazkien bitartez, Espainiarengandik independentzia lortu duten azken herriak gogoratuko ditugu: Kuba, Filipinak...

Edari exotikoren bat ekarriko duzue Filipinetatik?

Ez, edaririk ez. Filipinetaik ekartzekotan, beste zerbait agian, baina ez dut uste. Edariei dagokienez, mojito-aren tradizioari eutsiko diogu.

zer dinostazun!

«La ejecutiva del PP vasco propone a Iturgaiz como candidato a "lendakari"»

ABC

Bada, bai, "lendakari" (sic) ona izango litzateke, bai. Portzieto, "el PP vasco" Joseba da, ezta?

«Garmendia defiende la presunción de inocencia de AEK»

El Correo español

Zer inozentzia? Zer delitu egin du? Noiz izango da epaiketa?

«Arkaitz Zarraga: "No queremos que nadie pierda el castellano"»

El Correo español

Bueno, inork ez, inork ez... Titular mixerableak idazten dituen Correoeko kazetariren batek galzeta ondo legoke, behar bada. Astakeria gutxiago irakurri behar izango genuke.

Badakizue, bururatzin zaizkizuen «labankada» guztiak hemen agertzeko postontzia dago pisuan.

• **Bittor (tximaluze):** Ez al dakizu lehoi emek horrentzako ehizatzen dutela hauek bete behar dituzten erlazioak bete eta gero indarrak agorturik dituztelako? Kontuz ibili. Txikerra.

• **Arkaitz porrero:** Jeitsi ilargitik eta zapaldu

lurra. Lekeitiotik.

• **Peru:** Zure espektakuluaren zain gaude. Nola egin zenuen katuarekin Aste Nagusian? Gora zoofilia. Mitu.

• **Mutil abertzalea** barro bila. 5 zmtako materiala, kalitate onekoa, riko, riko... Mezuak hemen. Paketeman.

• **Jimmy:** Geure komando sekretuak azkenean gauzatu du bere ametsa: «civil» bat Indautxuko herriko

taberna «eskobatzen» kusi dugu! Gora gu ta gutarrak. Gora MZLK!!

• **Joxemi!!!!:** Maixu, maixu, erakutsiguzu zelan dantzatzeko duzun makailua!! Lekeitioko Kimuak.

• **Bahituta dagoen Eguzkiko partaide bati:** STOP. Bizirik al zaude? STOP. Hala bada bidalguzu keinu bat. STOP. Zaloa bahitzaile!! Xabier askatu!! TOTXInen ALDEKO PLATAFORMA.

• **Kalahorratik S.O.S. STOP.** Hemen euskaldunik ez. STOP. Lan gogorra gelditzen da. STOP. Ez kezkatu, lau urte barru baietz D eredu egon. Hau...hau erre-dakzioa.

• **Bittor, Manu, Gorka:** Zuen desgrazia guztien errudunak erre-kalden bizi dira eta anaiak dira. ZESIDen salatariak.

• **Gorka:** Hori bai ohitura ona, egunero muda aldatu.

Manifestaldia

Larunbata 25. Donostiako bulebarrean. 5:30etan. EHEk deituriko manifestaldiaren koordinadak dira. Ez dadila inor eregal, eta ez alperrak izan, Donostia bertan dago eta. Alde Zaharra, Deustua eta Santutxutik autobusak aterako dira 3:30etan. Prezioa: 900 pzta. Apuntatzeko, jo taberna hauetara: Herriko eta Kalderapeko (Alde Zaharra); Herriko (Deustua); Kaiku (Santutxu). Etor zaitez!!

Herri Urrats


Maiatzaren 10ean Herri Urrats ospatuko da. Baina, Eguzkizaleak, Askapeña eta Hau Pitu Hau konpartsak 9an joango direla agian ez dakizue.

Ordutegia: 9an (zapatua): 12etan irteera Arriagatik; 2etan Irunen poteoa eta bazkaria (eraman bokatak); 5etan poteoa Baionan; 8etan Kanpin denda jarri Senperen; 9etan Jaialdia eta kontzertua Saran; ordu txikietan lo egitera. 10ean (domeka): Herri Urratsera! 7:30etan buelta.

Prezioa: 2.500 pezeta. Txartela har daiteke Eguzkizalearen egoitzan: Ronda 22, 1. pisua ezkerrean. Informazioa nahi baduzu deitu 4163204 telefonora.

Apuntatzeko azken eguna: Maiatzak 6.

Inposaketa bakarra, erdalduna



Inposaketa bakarra legezkoa eta erdararen aldekoa da:

• Alde batetik 1978ko Konstituzioaren 3. artikulua —gaztelera nahitanahiez denok jakin behar dugu eta, aldiz, euskara eskubide bat da, nahi duenak jakiteko—.

• 1951ko Konstituzioak Frantziar Estatuan hizkuntza bakarra hartzen du kontuan: Frantsesera. Euskarak eta Estatuko gainontzeko 7 hizkuntza minorizatuak ez dute inolako status legalik.